

Kanbo

# CAMBO les-Bains Info

Berriak

*JUILLET 2025*
**N° 27**

**DOSSIER** | *Behakoa*

Cœur de Ville
*Hiri bihotza*

**BUDGET 2025** | *Aurrekontua*

Une gestion dynamique
*kudeaketa dinamiko*

*Villa Arnaga : Jardins à l'anglaise*

Sommaire | *Aurkibidea*


**4. ACTUALITÉS MUNICIPALES** | *Berriak*

**8. BUDGET** | *Aurrekontua*

**10. COMMERCE** | *Merkataritza*

**12 DOSSIER** *Behakoa*

**Cœur de Ville** *Hiri bihotza*

**16. TEMPS FORTS DU PRINTEMPS** *Udaberriko une nabarmenak*

**18. L'AGENDA** *Iskideak*

**24. ACCESSIBILITÉ** | *Sartze erraztasuna*

**25. SÉCURITÉ** | *Segurtasuna*

**27. MOBILITÉ** | *Mugikortasuna*

**28. TRIBUNES** | *Tribunak*


# « CHERS CAMBOARS, *Kanboar maiteak,* »




Bulletin édité par la Ville de Cambo-les-Bains - ISSN 3002-9260
Directeur de la publication / Argitalpenaren zuzendaria : *Christian Devèze*
Crédits photos / argazki ahalak : *Ville de Cambo-les-Bains, Instapades studio, Ela and the Poppies, Pierre-Alexandre Carré*
Création graphique / Sorkuntza grafikoa : *Flora Le Chenadec*

Ce magazine a pour vocation d'ouvrir une saison d'été qui ressemble à tout sauf à des vacances pour les Services de notre Ville. La densité du sommaire de cette édition témoigne de la richesse des rendez-vous qui nous attendent et de l'attention que nous portons au mieux vivre au quotidien dans notre cité.

Notre commune restera, cette année encore, vigilante à ce que tous nos enfants puissent accéder à des vacances dynamiques, grâce à nos Centre Communal d'Action Sociale et Centre de Loisirs Sans Hébergement bien sûr, rejoints, dans cet objectif, par le Rotary Club de Cambo dont je salue l'infatigable générosité.

Les ateliers de langue basque ouvriront eux aussi leurs portes au plus grand nombre dès le début du mois de septembre, en coordination avec «la saison langue basque» de la Communauté d'Agglomération Pays Basque.

Quant aux «Jeudis de la Halle», ils sont désormais un rendez-vous très attendu chaque saison.

Pour ce qui est de la sécurisation et de la replantation des arbres, suite à la tempête Kirk, vous avez sans doute observé, de la Route de Bayonne au Parc Saint Joseph, des chantiers d'envergure. La spectacularité des chênes rouges d'Amérique a déjà marqué les esprits. Toujours en matière de sécurisation mais concernant davantage nos importants efforts réalisés sur le réseau routier communal, notre commune vient d'obtenir officiellement, lors du dernier Congrès des Maires à Paris, le prestigieux classement : « Ville Prudente-2ème cœur »

S'agissant du budget primitif 2025 adopté en avril dernier, j'ai bien entendu tenu à ce que nous en partagions les données chiffrées. Sans vous noyer dans trop de détails, je souhaiterais souligner l'excellence de nos comptes comme en témoigne le niveau d'Epargne Brute dégagée au 31 décembre 2024 à hauteur de 947.000€ contre 644.000€ au 31 décembre 2023 soit une amélioration de +47% !

Cette performance plutôt rare pour ne pas dire unique dans un environnement financier exsangue, permettrait dans l'absolu à notre ville de se désendetter totalement en tout juste 5 ans, là où la plupart des communes semblables à la nôtre nécessitent le plus souvent autour de 10 ans et alors même que la limite critique avoisine les 12 années.

Cambo affiche une faculté de remboursement inégalée !

Reste que dans un contexte d'incertitude budgétaire tant au niveau départemental, régional que national, notre commune entend néanmoins garantir la qualité de ses services publics tout en assurant un niveau d'investissements soutenu sur des projets aussi structurants que le terrain de sport synthétique, le club house de pelote ainsi que le mur à gauche totalement rénové ou encore la couverture très demandée et justifiée du boulodrome..

Enfin nous nous interrogeons sur l'avenir du commerce de proximité. Une enquête vient d'être lancée à l'instar de celle que nous menons sur l'amenagement d'une cinquième tranche en Cœur de Ville, et à laquelle vous serez associés dans quelques semaines.

S'agissant pour terminer des «Temps forts» de cet été, ils vous sont décrits dans un agenda culturel et sportif détaillé. J'en détacherai la venue très attendue du Ballet Malandain de Biarritz à l'occasion de nos Estivales qui se dérouleront du 23 au 25 juillet prochains.

Je veux aussi saluer le nouveau souffle, déjà très remarqué, de la muséographie d'Arnaga et un focus sur les richesses archéologiques du site d'Olha.

Encore une fois, Cambo bouge, se modernise, sans jamais tourner le dos à son histoire et à ce qui fait l'âme unique de notre commune.

Bonne lecture et bel été à toutes et tous !

Bien fidèlement,

**CHRISTIAN DEVÈZE**



Aldizkari honek uda sasoia ireki nahi du, baina gure hiriko zerbitzuentzat ez dira oporrak izanen. Edizio honetako aipagaien dentsitateak agerian uzten du zain ditugun hitzorduen aberastasuna eta gure hirian egunerokoan hobeki bizitzeko dugun arreta.

Gure herria, aurten ere, erne egonen da gure haur guziek opor dinamikoak har ditzaten, gure Gizarte Ekintzako Udal Zentroari eta Aterperik Gabeko Aisialdi Zentroari esker, bistan da, helburu horrekin Kanboko Rotary Klubarekin bat eginik, zeinaren ezin akituzko eskuzabaltasuna agurtzen dudan.

Euskara tailerrek ere irail hastapenean irekiko dituzte beren ateak biztanleentzat, ondotik, «euskararen urtaroa» segituko du, Euskal Herriko Hirigune Elkargoarekin koordinaturik.

«Merkatu Estaliko Ostegunak», hitzordu biziki igurikatua dira urtaro bakoitzean.

Kirk tenpestaren ondotik, zuhaitzen segurtatzeari eta landaketari dagokionez, dudarik gabe ohartu zarete, Baionako Bidetik San Jose Parkeraino, hedadura handiko obra izan direla. Ikusteko diren Amerikako haritz gorrien jadanik markatu ditu izpirituak. Segurtasunean beti ere, baina herriko errepide sarean egin ditugun indar handieri dagokionez, gure herriak ofizialki lortu du, azken Auzapezen Biltzarrean, Parisen, «Hiri Zuhurra - 2. bihotza» sailkapen ospetsua.

Nahi izan dut, joan den apirilean onartu zen 2025eko Lehen Aurrekontuko datu zehatzak partekatu. Xehetasun gehiegirekin ito gabe, gure kontuen bikaintasuna azpimarratu nahi nuke, ateratutako Aurrezki Gordinaren suma erakusten duen bezala : 2024ko abenduaren 31n 947.000 €-koa zen, 644.000 €-koaren kontra 2023ko abenduaren 31n, hots % 47ko hobekuntza!

Emaitza hori, nahiko arraroa, bakarra ez errateko, finantza giro zaila batean, aukera emanen lioke gure hiriari 5 urtetan bakarrik zorretatik ateratzeko, gure bezalako herri gehienek gehienetan 10 urte inguru behar dutela, nahiz muga kritikoa 12 urte ingurukoa den.

Kanbok dirua itzultzeko ahal paregabea erakusten du!

Hala ere, departamendu, eskualde eta nazio mailako aurrekontu duda testuinguru batean, gure herriak bere zerbitzu publikoen kalitatea bermatu nahi du, eta, aldi berean, inbertsio maila gora segurtatuz eragin handiko proiektuetan, hala nola kirol zelai sintetikoan, pilota etxe klubean eta ezker paretan, guztiz berritua, edo anitz eskatua eta justifikatua den petanka zelaiaren aterpe baten eraikitzea.

Azkenik, hurbileko merkataritzaren etorkizunaz galdetzen diogu gure buruari. Ikerketa bat abiatu berri da, egiten ari garena bezala, hiri bihotzean boxtgarren zati baten antolaketari buruz, eta aste batzuen buruan parte hartuko duzue.

Bukatzeko, uda honetako «Aldi handiak» kultura eta kirol agenda zehatz batean deskribatzen dizkizuete. Ohartariziko nuke igurikatua den Biarritzeko Malandain Balletaren etorrera, heldu den uztailaren 23tik 25era iraganen diren gure Udakoen karietara.

Jadanik biziki ohartua den Arnagako museografiaren hats berria eta Olhako gune arkeologiko aberastasunei buruzko argitan ezartzea goretsi nahi ditut.

Berriz ere, Kanbo mugitzen ari da, modernizatzen, bere historiari eta gure herriaren arima bakar egiten duenari bizkarra eman gabe.

Irakurketa ona eta uda ederra deneri!

Zintzoki,



culture / kultura

# ANIMATIONS LANGUE BASQUE *Animazioak euskaraz*

**Le deuxième semestre 2025 s'annonce riche en animations en basque !**

Notre objectif principal : développer l'accès à la culture en langue basque.

Dès la rentrée, dans le cadre des « Jeudis de la Halle », la commune vous convie à un rendez-vous gratuit et sans inscription, le jeudi 4 septembre, à la Halle Bernadette Jougleux, à partir de 18h30.

La soirée débutera par le spectacle de danse « Badoa » du groupe Neskena, originaire de la commune voisine d'Espelette. Elle se poursuivra avec un moment musical assuré par Ekhi Lambert.

Deux jours plus tard, le samedi 6 septembre de 10h à 12h, à la Médiathèque, la commune vous propose un atelier d'initiation à la langue basque, ouvert à tous et gratuit !

Inscriptions : 05 59 93 50 70 / mediatheque@mairie-cambolesbains.fr

Cette année, la Saison de la Langue Basque, organisée par la communauté d'agglomération, se tiendra du 21 novembre au 3 décembre. À cette occasion, la commune proposera plusieurs animations gratuites en basque :

- Yoga en famille avec Oinutsik Yoga
- Présentation musicale du livre de comptines « XoOoo! » avec Josiane Aguerre-Valencia et sa musicienne Ainhoa Elizondo
- Exposition

Et bien d'autres surprises ! Tenez-vous prêts !

**Gure helburu nagusia: euskarazko kultur eskaintza garatzea.**

Irailetik goiti, « Les jeudis de la Halle « (ostegunetan aretoan) emanaldien esparruan, herriak doako eta izena eman gabeko hitzordu batera gonbidatzen zaitu, irailaren 4an, ostegunarekin, Bernadette Jougleux aretoan, 18:30etatik aitzina.

Arratsa Neskena taldearen «Badoa» dantza ikuskizunarekin hasiko da. Ondotik, Ekhi Lamberten musika emanaldiarekin segituko da.

Bi egun berantago, irailaren 6an, larunbata, 10:00etatik 12:00etara, Mediatekan, euskara ikasten hasteko tailerra eskainiko zaie herritarrei, urririk! Izena emateko: 05 59 93 50 70 / mediatheque@mairie-cambolesbains.fr

Aurten, Euskal Hirigune Elkargoak antolatutako "Euskararen Urtaroa", azaroaren 21etik abenduaren 3ra iraganen da. Oraingo honetan, herriko-etxeak hainbat doako jarduera eskainiko ditu euskaraz:

- Yoga familian, Oinutsik Yoga elkartearekin
- "XoOoo!" haurrentzako josteta kantu liburuaren aurkezpen musikala Josiane Aguerre-Valencia eta Ainhoa Elizondo musikariaren eskutik
- Erakusketa

Eta beste hainbat sorpresa! Adi egon!



jeunesse / gazteria

# DES VACANCES POUR TOUS:

*Oporrak denentzat:*

**Le CCAS renouvelle son engagement pour les enfants camboars**

Comme en 2024, le CCAS de Cambo-les-Bains facilite cet été le départ en vacances d'enfants camboars. Deux projets à Socoa sont en cours, pour un total de 10 départs (dont 6 avec un co-financement de la part du CCAS).

Le premier, identique à l'édition 2024, est rendu possible grâce au Lions Club de Biarritz, et aux recettes de la course des canards de Cambo-les-Bains. Plusieurs colonies sont disponibles, tout au long de l'été. Pour les familles ayant un Quotient Familial inférieur ou égal à 750. Reste à charge familial : 30€/enfant.

Le second est à l'initiative du Rotary Club de Cambo-les-Bains avec la participation de la Commune. 7 enfants partiront ensemble du 13 au 19 juillet à Socoa. Le reste à charge, minime, sera étudié selon les situations financières de chaque famille.

Pour plus de renseignements:
vous pouvez contacter Violaine Larralde, coordinatrice de l'action sociale au CCAS de Cambo-les-Bains : 05.59.93.50.76, actionsociale@mairie-cambolesbains.fr

**Gizarte Ekintzako Herriarteko Zentroak kanboko haurren aldeko engaiamendua berritu du**

2024an bezala, Kanboko Gizarte Ekintzako Herriarteko Zentroak uda honetan Kanboko haurrak oporretara joaten laguntzen ditu. Zokoara joateko bi proiektu abian dira, 10 ateraldi guztira (horietatik 6 GEUZk partzialki finantzatzen ditu).

Lehena, 2024an bezala, Biarritzeko Lions Club-ari esker eta Kanboko ahate lasterketaren sarrerei esker da posible. Hainbat udaleku daude eskuragarri udan zehar. 750 edo gutiagoko Familia-kozientea duten familientzat. Familiaren kargura gelditzen dena: 30 € haur bakoitzeko.

Bigarrena Kanboko Rotary Club-aren ekimena da. 7 haur elkarrekin joanen dira Zokoara uztailaren 13tik 19ra. Ordaintzeko gelditukko den gutienekoa, familia bakoitzaren finantza-egoeren arabera aztertuko da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan Violaine Larralde, Kanboko GEUZko gizarte ekintzako koordinatzailearekin: 05.59.93.50.76, actionsociale@mairie-cambolesbains.fr

## NOUVEAU TIMBRE POSTAL / POSTA-ZIGILU BERRIA

**À l'effigie du couple Rostand**
**Rostand bikotearen irudiarekin**

En vente uniquement à l'Accueil de la Mairie, l'Office de Tourisme et la boutique d'Arnaga.
Herriko Etxearen Harreran, Turismo Bulegoan eta Arnagako dendan bakarrik saltzen da.

*Au tarif normal 2025 de 1,39€*
*2025eko tarifa arrunteko 1,39 €-koa*





urbanisme / hirigintza

# SÉCURISATION DES ARBRES :

## Une action préventive pour la sécurité et la préservation du cadre de vie

# *Zuhaitzak segurtatu :*

## *Bizi-ingurunearen segurtasunerako etababeserako prebentzio-ekintza.*

**À la suite du passage de la tempête Kirk, qui a mis en évidence certaines fragilités au sein du patrimoine arboré communal, un diagnostic complet a été réalisé par un expert forestier. Trois secteurs de la commune ont ainsi fait l'objet d'interventions ciblées, dans une logique de sécurisation mais aussi de gestion durable de notre environnement.**

### ROUTE DE BAYONNE : UNE OPÉRATION MAJEURE

Le chantier principal a eu lieu route de Bayonne, près du garage Lerzy, dans un secteur peuplé de chênes rouges d'Amérique. Trois arbres, gravement atteints par un champignon lignivore, ont été abattus pour des raisons de sécurité. Les quatorze autres ont été élagués plus ou moins fortement selon leur état, afin de limiter leur prise au vent et prévenir les chutes. Les arbres supprimés seront remplacés par des essences plus petites, mieux adaptées au site.

### RUE DE LA BERGERIE : DES CHÊNES DÉPÉRISSANTS

Un second chantier a été mené rue de la Bergerie, à proximité du laboratoire d'analyses. Là encore, trois chênes pédonculés dépérissants ont dû être abattus pour des raisons de sécurité.

### PARC SAINT JOSEPH : ENTRE PRÉVENTION ET REPLANTATION

Au parc Saint Joseph, plusieurs interventions sont en cours. Trois arbres ont déjà été élagués et trois autres, des chênes rouges atteints par un champignon lignivore, seront prochainement abattus. Ils seront remplacés par des essences plus adaptées au site et au climat futur, pour restaurer l'ombrage et préserver la qualité paysagère du parc. Le choix des espèces intègre les contraintes locales et les enjeux climatiques, dans une démarche durable.

La photo ci-dessous montre l'impact du champignon sur un arbre du parc et un chêne de la rue de la Bergerie, illustrant la nécessité de ces interventions, menées pour la sécurité publique et la préservation d'un patrimoine végétal sain et résilient.



## UN PLAN DE PLANTATION POUR UN CADRE DE VIE DURABLE

La commune poursuit activement son plan de plantation, conciliant préservation du patrimoine végétal et adaptation climatique. Cette politique volontariste reflète la mission de service public des espaces verts : un investissement pour l'avenir et un bénéfice quotidien pour les habitants. Au parc Saint-Joseph, les jeunes liquidambars des parcelles du fond (vers la halle) seront déplacés vers un espace moins concurrentiel pour favoriser leur développement. Ce geste illustre une gestion raisonnée, où chaque arbre est un élément du paysage urbain.

Aux jardins d'Arnaga, la commune reste vigilante face au vieillissement de certains arbres, fragilisés par le vent. Une vingtaine de plantations annuelles (chênes, érables, tilleuls…) assurent leur renouvellement. Les essences sont choisies pour leur adaptabilité, leur longévité et leur qualité esthétique. Ce travail soutenu montre l'engagement de la commune pour une nature en ville, bénéfique à tous : embellissement, biodiversité, lutte contre les îlots de chaleur, adaptation au changement climatique. Planter aujourd'hui, c'est préparer demain.

**Kirk ekaitzak herriko zuhaitz-ondarearen zenbait ahulezia agerian utzi zituenez, oihangintzako aditu batek diagnostiko oso bat egin zuen. Gure ingurumenaren segurtasuna baita kudeaketa jasangarria ere helburu zuten esku-hartze espezifikoak egin dira herriko hiru sektoretan.**

## BAIONAKO BIDEA: OPERAZIO NAGUSI BAT

Obra nagusia Baionako bidean izan da, Lerzy garajearen ondoan, Amerikako haritz gorriz betetako eremu batean. Hiru zuhaitz, zuhaitzak jaten duen onddo batekin larriki hunkituak, moztuak izan dira segurtasun arrazoiengatik. Beste hamalauak handiagoz edo txikiagoz xedarratuak izan dira beren egoeraren arabera, haizeak lopiderik ukan ez dezan eta erortzeak saihesteko. Kendutako zuhaitzen ordez, esentzia txikiagoak ezarriko dira, tokirako egokiagoak.

## RUE DE LA BERGERIE/ ARDITEGIKO KARRIKA: HARITZA IHARTUAK

Bigarren obra bat eraman da Arditegiko karrikan, azterketa-laborategitik hurbil. Han ere, ihartzen ari ziren hiru haritz kandudun moztu behar izan ziren, segurtasun arrazoiengatik.

## SAN JOSE PARKEA: PREBENTZIOA ETA BERRITZEAREN ARTEAN

San Jose parkean, hainbat obra egiten ari dira. Hiru zuhaitz jadanik moztu dituzte, eta beste hiru, onddo batek hunkitutako haritz gorriak, laster moztuko dituzte. Leku eta etorkizuneko klimarako egokiagoak diren esentziek ordezkatuko dituzte, itzala berrezartzeko eta parkearen paisaia kalitatea zaintzeko. Espezien hautaketak tokiko betebeharrak eta klimaren aldeko ekintzak integratzen ditu, urrats iraunkor batean.

Argazkiak onddoak parkeko zuhaitz batean eta Elorrimendi karrikako haritz batean duen eragina erakusten du ; segurtasun publikorako eta landare ondare sano eta azkar baten zaintzeko eginak diren obra horien beharraren erakusle dira.

## INGURUMEN IRAUNKOR BATENDAKO LANDATZE PLAN BAT

Herriak azkarki segitzen du bere landaketa plana, landare ondarearen zaintzea eta klima egokitzea uztartuz. Politika boluntarista honek berdeguneen zerbitzu publikoaren misioa erakusten du: etorkizunerako inbertsioa eta biztanleendako eguneroko ongia.
San Jose parkean, gibleko lur zatien « liquidambar » motako arbol gazteak (merkatu aldera) hain lehiakorra ez den gune batera eramanak izanen dira, haien garapena bultzatzeko. Aldaketa horrek zentzuzko kudeaketa erakusten du, non zuhaitz bakoitza hiriko paisaiaren elementu bat den.

Arnagako loratégietan, herriak erne egoiten da haizeak ahuldutako zuhaitz batzuen zahartzearen aitzinean. Urteko hogei bat landaketek (haritzak, astigarrak, ezkiak…) haien berritzea segurtatzen dute. Esentziak egokitzeagatik, bizi luzetasunagatik eta edertasunagatik hautatuak dira.
Lan handi horrek erakusten du natura hirian alde duen engaiamendua, denentzat onuragarria dena: edertzea, bioaniztasuna, bero guneen aurkako borroka, klima aldaketara egokitzea. Gaur landatzea, bihar prestatzea da.



**BUDGET 2025**

# UNE GESTION DYNAMIQUE ET RESPONSABLE AU SERVICE DU TERRITOIRE

*Kudeaketa dinamiko eta arduratsua lurraldearen zerbitzura*

Le budget primitif 2025 de la commune de Cambo-les-Bains, voté par le Conseil municipal le 04 avril, s'élève à **14,3 millions d'euros**, répartis entre **8,16 M€ pour la section de fonctionnement** et **6,15 M€ pour la section d'investissement.** Il traduit la volonté municipale de conjuguer **rigueur budgétaire, qualité des services publics et ambition pour l'avenir.**

Herriko Kontseiluak apirilaren 4an bozkatu zuen Kanboko 2025eko hasierako aurrekontua, **14,3 milioi eurokoa** da, eta honela banatzen da: **8,16 milioi € funtzionamendu-atalerako eta 6,15 milioi € inbertsio-atalerako**. Herriko Etxearen borondatea da **aurrekontu-zorroztasuna, zerbitzu publikoen kalitatea** eta **etorkizunerako anbizioa** uztartzea.

## FONCTIONNEMENT : MAINTENIR UN SERVICE PUBLIC DE QUALITÉ
## *FUNTZIONAMENDUA: KALITATEZKO ZERBITZU PUBLIKOA ZAINTZEA*

### Les recettes de fonctionnement (8,16 M€) / *Funtzionamendu diru-sartzeak (8,16 milioi €)*




***Ces recettes témoignent d'une bonne autonomie fiscale et d'une gestion équilibrée des ressources.***
***Diru-sartze horiek autonomia fiskal ona eta baliabideen kudeaketa orekatua erakusten dute.***

### Les dépenses de fonctionnement (8,16 M€) / *Funtzionamendu gastuak (8,16 milioi €)*




***Les dépenses sont maîtrisées, tout en permettant le bon fonctionnement des services et le soutien à la vie associative, au cœur de la dynamique camboarde.***
***Gastuak kontrolatuak dira, eta, aldi berean, zerbitzuek ongi funtzionatzea eta elkarte-bizitzari laguntzea ahalbidetzen dute, horiek baitira herriaren dinamikaren bihotzean.***

# INVESTISSEMENT : BÂTIR L'AVENIR DE CAMBO-LES-BAINS
# *INBESTIMENDUA: KANBOREN ETORKIZUNA ERAIKI*

## Des projets structurants pour 6,15 M€ / *6,15 milioi euroko proiektu egituratzaileak*

L'année 2025 est marquée par la poursuite de nombreux projets d'envergure :

- **Création d'un terrain de sport synthétique : 1,13 M€**, pour moderniser l'offre sportive locale.
- **Réhabilitation du mur à gauche : 686 K€**, pour préserver et valoriser le patrimoine sportif.
- **Construction du nouveau siège de la pelote basque : 507 K€**, pour soutenir un sport emblématique.
- **Réaménagement de l'orangerie et des écuries d'Arnaga : 371 K€**, dans le cadre de la valorisation du musée.
- **Giratoire Albeniz : 433 K€**, pour fluidifier les circulations et sécuriser les accès.
- **Couverture du boulodrome : 123 K€**, pour un meilleur usage annuel.
- **Enfouissement des réseaux et éclairage public : 364 K€** (quartier Haurtzain, venelle Kornunia, rue des écoles).
- **Voirie et mobilier urbain : 600 K€**, pour l'entretien et la modernisation des espaces publics.
- **Rénovation énergétique de 4 logements communaux : 60 K€**, en faveur de la transition écologique.

2025ean, maila handiko hainbat proiektuk segitzen dute :

- **Kirol-eremu sintetiko bat sortzea: 1,13 milioi €**, herriko kirol-eskaintza berritzeko.
- **Ezker-pareta zaharberritzea: 686 000 €**, kirol-ondarea zaintzeko eta lehen tokian emateko.
- **Euskal pilotaren egoitza berria eraikitzea: 507 000 €**, kirol enblematikoa bultzatzeko.
- **Arnagako "Orangerie" eta zalditegiak berrantolatzea: 371 000 €**, museoaren balorizazioaren esparruan.
- **Albeniz biribilgunea: 433 000 €**, zirkulazioa arintzeko eta sarbideak segurtatzeko.
- **Bola jokoen zelaia estaltzea: 123 000 €**, urte osoan erabili ahal izateko.
- **Sareak lurperatzea eta argiteria publikoa: 364 000 €** (Haurtzain auzoa, Kornunia etxartea, eskolen karrika).
- **Errepideak eta hiri-altzariak: 600 000 €**, espazio publikoak zaintzeko eta gaurkotzeko.
- **Herriko 4 bizitegien energia-berrikuntza: 60 000 €**, trantsizio ekologikoaren alde.

## Des recettes diversifiées et soutenues / *Diru-sartze anitzak eta iraunkorrak*

Pour financer ces investissements, la commune mobilise :

- **Un emprunt d'équilibre maîtrisé de 2,47 M€.**
- **Des subventions d'investissement (État, Département, Région, partenaires)** à hauteur de **896 K€.**
- **Des dotations et fonds propres** (FCTVA, taxe d'aménagement, excédents capitalisés) pour **1,13 M€.**
- **Le virement de la section de fonctionnement : 366 K€.**
- **Le report de l'excédent 2024 : 724 K€.**

Cette stratégie financière permet à Cambo-les-Bains de **réaliser ses ambitions sans compromettre son équilibre budgétaire**, en investissant pour le long terme au service de tous.

Inbestimendu horiek finantzatzeko, Herriko Etxeak honako hauek mobilizatzen ditu:

- **2,47 milioi €-ko oreka kontrolatua duen mailegu bat.**
- **Inbestimendurako dirulaguntzak** (Frantses estatua, Departamentua, Eskualdea, partaideak), **896 000 €** guztira.
- **Zuzkidurak eta funts propioak** ("FCTVA" - Balio erantsiaren gaineko zergarako konpentsazio-funtsa, urbanizazio-zerga, soberakin kapitalizatuak), **guztira 1,13 milioi €.**
- **Funtzionamendu-atalaren transferentzia: 366 000 €.**
- **2024ko soberakinaren erakartzea: 724 000 €.**

Finantza-estrategia horri esker, **helburuak betetzen** ditu herriak, **aurrekontu-oreka arriskuan ezarri gabe**, epe luzera guztion zerbitzura inbestituz.


HOTEL CAFE DU TRINQUET
GLACES

service / zerbitzu

# CAMBO-LES-BAINS LANCE UNE ÉTUDE D'ENVERGURE SUR SON COMMERCE DE PROXIMITÉ



## *Kanbok hurbilekomerkataritzari buruzko azterlan handi bat abiatzen du*

**La commune de Cambo-les-Bains a engagé en mars 2025 une étude stratégique sur le commerce local afin de renforcer l'attractivité du centre-ville, soutenir les commerçants et anticiper les évolutions économiques de demain. Dans un contexte de transformation des modes de consommation, cette démarche vise à mieux comprendre les besoins du tissu commercial camboar, tant pour les habitants que pour les visiteurs, notamment les curistes et touristes.**

Cette étude, pilotée par Marie-Eve FEREROL missionnée par la Ville en tant que Manager de commerce, repose sur une méthode rigoureuse en trois étapes : une enquête de terrain, la rédaction d'un diagnostic, puis la présentation d'un rapport définitif. L'enquête, conduite jusqu'à l'automne 2025, s'appuie sur des questionnaires, des entretiens avec les commerçants, les consommateurs et les propriétaires de locaux vacants, ainsi qu'un repérage fin sur l'ensemble du territoire communal.

L'analyse des données recueillies permettra de dresser un état des lieux précis de l'offre commerciale, d'identifier les forces et les fragilités du tissu existant, et de comparer la situation de Cambo à celle d'autres villes thermales. Ce travail de fond servira de base à l'élaboration d'un plan d'action concret : accompagnement des commerçants, lutte contre la vacance commerciale, amélioration de l'environnement urbain, dynamisation de l'activité en basse saison.

Parce que les commerces de proximité jouent un rôle économique, mais aussi social et identitaire, la municipalité a fait le choix d'une approche ambitieuse et concertée. Ce projet s'inscrit dans une vision à long terme : faire de Cambo-les-Bains une Ville toujours plus vivante, accueillante et attractive.

**2025eko martxoan Kanboko herria hasi zen lekuko merkataritzari buruzko azterlan estrategiko bat egiten, herriaren erdigunearen erakargarritasuna indartzeko, merkatariak laguntzeko eta biharko bilakaera ekonomikoei aurre egiteko. Kontsumo-moduen eraldaketaren testuinguruan, egitasmo honen helburua Kanboko merkataritza-ehunaren beharrak hobeki ulertzea da, bai biztanleentzat, bai bisitarientzat, bereziki kuristak eta turistak.**

Ikerketa hau, herriak merkataritza-manager izendatu duen Marie-Eve FEREROL-ek zuzentzen du, eta hiru etapatako metodo zorrotz batean oinarritzen da: ikerketa bat, diagnostiko baten idazketa eta, azkenik, behin betiko txosten baten aurkezpena. Ikerketa 2025eko udazkenera arte eramanen da, eta galdeketak, merkatariekin, kontsumitzaileekin eta lokal hutsen jabeekin egindako elkarrizketak eta herri osoko aztertze zehatza ditu oinarri.

Bildutako datuen analisiari esker, merkataritza-eskaintzaren egoera zehatza eginen da, gaurko ehunaren indarguneak eta ahulguneak identifikatuko dira, eta Kanboko egoera beste hiri termaletako egoerarekin alderatuko da. Lan sakon hau ekintza-plan zehatz bat egiteko oinarria izanen da: merkatariei laguntza ematea, hutsik dauden merkataritza-lokalen aurka egitea, hiri-ingurunea hobetzea, sasoi arinean jarduera dinamizatzea.

Hurbileko saltokiek eginkizun ekonomikoa dutelako, baina baita soziala eta identitarioa ere, herriko etxeak asmo handiko ikuspegi adostuaren alde egin du. Proiektu hau epe luzerako ikuspegi batean kokatzen da: Kanbo herri beti biziagoa, abegikorragoa eta erakargarriagoa bihurtzea.

urbanisme / hirigintza

# QUEL AVENIR POUR LE CŒUR DE VILLE DE CAMBO-LES-BAINS ?

## *Zein da Kanboko erdigunearen etorkizuna?*



**Une étude urbaine pour penser ensemble la cinquième tranche « Cœur de Ville »**

La commune de Cambo-les-Bains a engagé une étude ambitieuse pour imaginer l'avenir d'une nouvelle phase de son « Cœur de Ville », situé sur un périmètre allant du fronton à la place Duhalde en passant par la zone autour de l'ancien centre municipal de Denentzat. Encore peu exploité aujourd'hui, cet emplacement stratégique représente une opportunité unique d'élargir le centre-ville et de renforcer son attractivité.

L'objectif de cette démarche est de construire une vision cohérente, durable et partagée de ce que pourrait devenir ce Cœur de Ville élargi. La municipalité a souhaité prendre le temps de la réflexion pour structurer les nombreux souhaits exprimés : développement de logements, création de commerces, équipements culturels et associatifs, stationnements et aménagements paysagers.

Accompagnée par l'AUDAP (Agence d'Urbanisme Atlantique & Pyrénées), la Ville a mené plusieurs ateliers et enquêtes pour nourrir cette réflexion.

Ce travail a permis de faire émerger les **grandes ambitions du futur programme**, parmi lesquelles :

→ **Une part significative de logements**, pour répondre à la demande locale, sous forme de petits collectifs intégrés dans le tissu urbain.

→ **Des espaces publics conviviaux**, végétalisés, pensés comme des lieux de rencontre intergénérationnels.

→ **Un îlot apaisé**, sans circulation automobile en surface, favorisant les déplacements doux.

→ **Des équipements culturels et associatifs**, comme une maison des associations et une salle de cinéma modulable.

→ **Des activités commerciales de proximité**, avec notamment l'idée d'une halle gourmande pour valoriser les produits locaux.

Cette étude pose ainsi les fondations d'un projet structurant, à l'image de Cambo : dynamique, agréable à vivre et respectueux de son identité.

**"Herriaren bihotza" boxtgarren fasea elgarrekin pentsatzeko hiri-azterketa**

Kanboko herriak anbizio handiko azterlan bati ekin dio "Hiriaren bihotza"-ren fase berri baten etorkizuna irudikatzeko. Fase hori frontoitik Duhalde plazaraino doa, Denentzat herriko zentro zaharretik pasatuz. Gaur egun guti erabiltzen den arren, kokapen estrategiko hori aukera paregabea da herriaren erdigunea handitzeko eta erakargarritasuna indartzeko.

Egitasmo horren helburua da ikuspegi koherentea, jasangarria eta partekatua eraikitzea hirigune zabaldu hori izan daitekeenaren inguruan. Herriko etxeak denbora hartu nahi izan du hausnarketa egiteko eta adierazitako nahi ugariak egituratzeko: etxebizitzen garapena, saltokien sortzea, kultura- eta elkarte-ekipamenduak, aparkalekuak eta paisaia antolketa.

APHAk, (Atlantiko-Pirinio Hirigintza Agentziak-AUDAP) lagunduta, herriak hainbat tailer eta ikerketa eraman ditu hausnarketa hori elikatzeko. Lan horri esker, **etorkizuneko programaren anbizio handiak** azaleratu dira, besteak beste:

→ **Etxebizitza kopuru nahiko handia eraikitzea,** lekuko eskaerari erantzuteko, hiri-egituran integratutako eraikin kolektibo ttipi moduan antolatuak.

→ **Espazio publiko abegikorrak,** landareztatuak, belaunaldien arteko topagune gisa pentsatuak.

→ **Erdigune lasaitua,** gainazalean autorik gabe, desplazamendu leunak erraztuz.

→ **Kultura- eta elkarte-ekipamenduak**, hala nola elkarte-etxe bat eta zinema-areto modulagarri bat.

→ **Hurbileko merkataritza-jarduerak,** lekuko produktuak balioan emanen dituen merkatu estali batekin.

Horrela, ikerketa honek Kanboren irudiko proiektu egituratzaile baten oinarriak finkatzen ditu: dinamikoa, bertan bizitzeko atsegina eta bere nortasuna errespetatzen duena.



## Ce projet vous intéresse ?

Répondez au questionnaire joint
ou via notre site internet
www.cambolesbains.fr

*« La ville maîtrise plusieurs parcelles, sur lesquelles le bâti a une faible de valeur. Il y a peu de fonctions à reloger, les baux sont précaires »*
**Faire table rase de ces bâtiments pour accueillir de nouvelles fonctions**

*« A Denenzat comme dans d'autres locaux municipaux, les associations n'utilisent que partiellement les locaux »*
**Auditer les besoins des associations (réunion, stockage...), évaluer les capacités de mutualisation et identifier les espaces qui pourraient être libérés ailleurs dans Cambo.**




*« Cet espace est une chance pour Cambo »*
**En profiter pour y loger les fonctions envisagées tout en maintenant une part du végétal**
- une locomotive, une fonction vectrice d'attractivité
- une halle (format, fonctions et implantation à préciser)
- un cinéma de de 2 à 3 salles dont une modulable
- une maison des associations
- un espace public : parc ou place
- un espace de restauration / bar
- des logements (50% de la SDP)
- du stationnement (besoins du centre-ville, des projets à créer et de Toki Eder)

*« La voiture est très présente, en circulation comme en stationnement »*
**Apaiser les vitesses et les flux de circulation dans le centre pour relier les deux côtés de la rue et marquer l'entrée du centre-ville de Cambo**

*« Le cinema pourrait être plus grand »*
**Construire un cinéma de 2 à 3 salles dont une modulable, imaginer des logements sur le site existant**

*« Ces bâtiments sont laids et peu fonctionnels, mais les commerces sont essentiels et on manque de cellules pour les accueillir »*
**Créer une halle pour réunir et mieux accueillir les commerces et les clients. Réaliser une opération « tiroir » pour que les commerces n'aient pas à fermer**




*« Les potentiels du bâtiment et du parking du CMS ne sont peut-être pas pleinement utilisés. Le CCAS, à l'étage, est peu lisible. »*
**Auditer les capacités du CMS et les besoins en équipements**

*« Ces parcelles pourraient être intéressantes à long terme. »*
**Maintenir une veille sur les fonciers stratégiques et « vérouiller » les évolutions**

*« C'est un des meilleurs frontons du Pays Basque ! Il va y avoir un nouveau local. On pourrait imaginer mieux l'ouvrir ou valoriser la place »*
**Réfléchir à une meilleur intégration / valorisation du fronton et ses abords**

*« Toki Eder a des besoins de stationnement et de logement et a du mal à les gérer, le parc est classé »*
**Evaluer avec Toki Eder leurs besoins et les accompagner dans leur organisation sur et hors du site**

# TEMPS FORTS DU PRINTEMPS







**1**

**13 JANVIER 2025**
**2025EKO URTARRILAREN 13A**

### 100 ans après,
Charles Rostand
chez les Rostand

### 100 urte geroago,
Charles Rostand
Rostand-tarren etxean

**2**

**15 MARS 2025**
**2025EKO MARTXOAREN 15A**

### Accueil des nouveaux arrivants

### Biztanle berriei harrera

**3**

**1ER AVRIL 2025**
**2025EKO APIRILAREN 1A**

### « Le Club des natifs du 1er avril »
fondé en 1888 accueilli à la Villa Arnaga par Yves Ugalde, CCI (Chansonnier, Comédien, Imitateur)

### « Apirilaren 1ean sortutakoen kluba »
1888an sortua, Arnaga etxean, Yves Ugalde, Koplaria, Antzezlaria, Imitatzailearen eskutik

# *Udaberriko une nabarmenak*

**4**

**SAMEDI 19 AVRIL**
**APIRILAREN 19A, LARUNBATA**

**Grande chasse aux œufs dans les jardins de la Villa Arnaga**
**Arroltze bilaketa handia Arnaga etxeko lorategietan**

**5**

**SAMEDI 17 MAI**
**MAIATZAREN 17A, LARUNBATA**

**Nuit des musées à la Villa Arnaga**
**Museoen gaua Arnaga etxean**

**6**

**DU 26 MAI AU 13 JUIN**
**MAIATZAREN 26TIK EKAINAREN 13RA**

**Concours des mini-jardins**
Au Parc Saint-Joseph avec 17 participants
**Lorategi ttipien lehiaketa**
San Josep parkean 17 parte-hartzailerekin

**7**

**7 ET 8 JUIN**
**EKAINAREN 7 ETA 8AN**

**Les rendez-vous aux jardins**
Dans les jardins de la Villa Arnaga
**"Hitzorduak lorategietan"**
Arnaga etxeko lorategietan


4


5


5


6


7

# L'AGENDA

**JUSQU'AU 20/07/2025**
EXPOSITION / ERAKUSKETA
**UN ANIMAL, DES ANIMAUX**
Médiathèque

**JUSQU'AU 12/07/2025**
EXPOSITION / ERAKUSKETA
**MICHEL FREMAUX & MARC PAINEAU – VITRAUX ET DESSINS**
Espace Culturel Assantza
mardi au samedi - 14h-18h

**13/07/2025**
SPECTACLE / IKUSGARRIA
**FEU D'ARTIFICE**
Concert de l'harmonie de Cambo
et feu d'artifice
Esplanade Orangerie de la Villa Arnaga.
A partir de 20h

**14/07/2025**
CÉRÉMONIE / ZEREMONIA
**FÊTE NATIONALE: CÉRÉMONIE MONUMENT AUX MORTS**

**16/07/2025 AU 28/08/2025**
EXPOSITION / ERAKUSKETA
**PORTRAITS DE PABLO TILLAC**
Espace Culturel Assantza
mardi au samedi - 14h-18h

**16/07/2025**
PATRIMOINE / ONDAREA
**HEGALALDIA**
Présentation association et/ou ateliers
Médiathèque - 10h30

**18/07/2025**
PATRIMOINE / ONDAREA
**MARCHÉ NOCTURE**
Fronton du Bas Cambo 18h-22h

**20/07/2025**
ANIMATION / ANIMAZIO
**VOILIERS TÉLÉCOMMANDÉS SUR LE MIROIR D'EAU**
Villa Arnaga - 14h30-16h30
Gratuit pour les Camboards

## LES ESTIVALES 2025

**23-24-25 /07/2025**
CULTURE / KULTURA
**ESTIVALES D'ARNAGA**
Villa Arnaga – 21 H

**24/07/2025**
THÉÂTRE / ANTZERKIA
**"LES ROSTAND"**
Compagnie Intersignes

**23/07/2025**
SPECTACLE / IKUSGARRIA
**BALLET MALANDAIN "MOSAÏQUE"**

**25/07/2025**
THÉÂTRE / ANTZERKIA
**"LES FOURBERIES DE SCAPIN"**
La Ben Compagnie

**08/08/2025**
LECTURE / IRAKURKETA
**CERCLE DE LECTURE**
Médiathèque 18h30

**08 AU 13/08/2025**
FESTIVITÉ / BESTAK
**FÊTES DE CAMBO**
Centre ville

**13/08/2025**
LECTURE / IRAKURKETA
**LIBREPLUME**
Lecture en français
Médiathèque. 10H30

**15/08/2025**
PATRIMOINE / ONDAREA
**MARCHÉ NOCTURE**
Fronton du Bas Cambo 18h-22h

**17/08/2025**
ANIMATION / ANIMAZIO
**VOILIERS TÉLÉCOMMANDÉS SUR LE MIROIR D'EAU**
Villa Arnaga - 14h30-16h30
Gratuit pour les Camboards

**22/08/2025**
MUSIQUE / MUSIKA
**FONDATION CAPUÇON**
Concert
Eglise 19H

**22/08/2025**
PATRIMOINE / ONDAREA
**MARCHÉ NOCTURE**
Fronton du Bas Cambo
18h-22h

**02 AU 13/09/2025**
EXPOSITION / ERAKUSKETA
**PEINTRES AMATEURS DE CAMBO**
Espace Culturel Assantza
mardi au samedi - 14h-18h

# *Iskideak*

**04/09/2025**
**SPECTACLE / IKUSGARRIA**
**"LES JEUDIS DE LA HALLE"**
Badoa dantza ikusgarria / Spectacle de danse Badoa par le groupe Neskena d'Espelette. 18H30
Ekhi Lambert-ekin kontzertua / Concert avec Ekhi Lambert. 19H00
Halle Bernadette Jougleux

**6/09/2025**
**PATRIMOINE / ONDAREA**
**FORUM DES ASSOCIATIONS**
Halle Bernadette Jougleux – 14H-18H

**11/09/2025**
**MUSIQUE / MUSIKA**
**"LES JEUDIS DE LA HALLE"**
LE RÉVEIL URTOIS - Concert
Halle Bernadette Jougleux – 19H30

**14/09/2025**
**CULTURE / KULTURA**
**8ÈME SALON DU LIVRE**
Halle Bernadette Jougleux

**16 AU 30/09/2025**
**EXPOSITION / ERAKUSKETA**
**ARCHÉOLOGIE**
Médiathèque - mardi au samedi - 14h-18h

**16 AU 27/09/2025**
**EXPOSITION / ERAKUSKETA**
**PHOTOS** de Jacques Lannes et **PEINTURES** de Arantxa Lannes
Espace Culturel Assantza
mardi au samedi - 14h-18h

**17/09/2025**
**LECTURE / IRAKURKETA**
**LIBREPLUME**
Lecture comptines, jeux en basque avec Joanna DETCHART
Médiathèque. 10H30

**20 & 21/09/2025**
**PATRIMOINE / ONDAREA**
**JOURNÉES DU PATRIMOINE**
Villa Arnaga - Accès libre aux jardins et ½ tarif pour la Villa.

**1-31 OCT**
**EXPOSITION / ERAKUSKETA**
**ARCHÉOLOGIE**
14h-18h mardi au samedi
Espace Culturel Assantza

**4 & 5/10/2025**
**FESTIVITÉ / BESTAK**
**22ÈME FÊTE DU GATEAU BASQUE**

**31/10/2025**
**SPECTACLE / IKUSGARRIA**
**ARIMEN GAUA** : Défilé des enfants des écoles puis spectacle
Halle Bernadette Jougleux

MARCHÉ
*MERKATUAK*

**Tous les vendredis**
**Ostiralero**
**PRODUITS DE BOUCHE ET ARTISANAT D'ART**
Rue Chiquito. 8H-13H

BROCANTE
*KUKUSO MERKATU*

**Tous les mercredis**
**Asteazkenero**
**BROCANTE**
Parc St Joseph. 9H-18H

**LES 2, 9, 16, 23 & 30/07 ET LES 6, 13, 20 & 27/08/2025**

PATRIMOINE
*ONDAREA*

**VISITE INSOLITE**
Visite guidée des jardins, de la villa et des sous-sols
**Villa Arnaga**



ANIMATION *ANIMAZIO* · SPECTACLE *IKUSGARRIA* · THÉÂTRE *ANTZERKIA* · LECTURE *IRAKURKETA* · EXPOSTION *ERAKUSKETA* · PATRIMOINE *ONDAREA* · SPORT *KIROLA* · FESTIVITÉ *BESTAK* · CÉRÉMONIE *ZEREMONIA* · JEUNESSE *GAZTERIA* · CULTURE *KULTURA* · CONCOURS *LEHIAKETA* · MUSIQUE *MUSIKA* · JARDIN *LORATEGIA*

# LES ESTIVALES 2025

## DANSE ET THÉÂTRE
*Dantza eta antzerkia*

Villa Arnaga
23 au 25 juillet 2025
Arnaga etxea
2025eko uztailaren 23tik 25era

**Cet été, la magie du spectacle s'installe à nouveau dans les jardins somptueux de la Villa Arnaga pour une édition haute en couleurs des Estivales.
Du 23 au 25 juillet, trois soirées exceptionnelles mêleront danse, théâtre et émotion sous les étoiles.**

**Uda honetan, ikuskizunaren magia Arnaga etxeko lorategi dotoreetan finkatuko da berriz ere, kolorez beteriko "Estivales" edizio baterako.
Uztailaren 23tik 25era, hiru gau paregabek dantza, antzerkia eta emozioa nahasiko dituzte izarren azpian.**

### 1 MALANDAIN BALLET BIARRITZ

spectacle / ikusgarria

Le 23 juillet, le prestigieux **Malandain Ballet Biarritz** ouvre le bal avec Mosaïque, un voyage dansé au cœur de la musique classique, où chaque tableau est une pièce du puzzle d'émotions chorégraphiques. Sous la direction de Thierry Malandain, Mosaïque assemble des extraits emblématiques du répertoire du Ballet : Le Cid, Nocturnes, Boléro, etc. Les œuvres de Mozart, Chopin, Tchaïkovski ou encore Ravel s'y entrelacent, créant une mosaïque humaine et sensible. Un pur moment de grâce.

Uztailaren 23an, **Malandain Ballet Biarritz** ospetsuak "Mosaïque" baleta emanen du, bidaia dantzatua musika klasikoaren bihotzean, non zati bakoitza emozio koreografikoen puzzlearen pieza bat den. Thierry Malandain-en zuzendaritzapean, Mosaïque-k Baletaren errepertorioaren laburpen enblematikoak uztartzen ditu: El Cid, Nocturnes, Boléro, etab. Mozart, Chopin, Tchaikovsky edo Ravelen lanak han korapilatzen dira, giza mosaiko sentikor bat sortuz. Grazia hutsezko une bat.



*Tarifs : Adulte 25 € / Enfant 12-17 ans : 20 €*
*Tarifak: Helduak 25 €/ Haurrak 12-17 urte: 20 €*



*Tarifs : Adulte 18 € / Enfant 12-17 ans : 13 €*
*Tarifak: Helduak 18 €/ Haurrak 12-17 urte: 13 €*

### 2 LES ROSTAND

théâtre / antzerkia

Le 24 juillet, place à la poésie avec la pièce Les Rostand, de la Compagnie Intersignes. Un hommage émouvant à Edmond Rostand et à son épouse Rosemonde Gérard, deux âmes poètes dans le tumulte de la Belle Époque.

Uztailaren 24an, poesiak hartuko du eszenatokia Intersignes konpainiaren "Les Rostand" lanarekin. Omenaldi hunkigarria Edmond Rostand eta bere emazte Rosemonde Gérard-i, bi arima poetiko "Belle Époque" garai zalapartatsuan.

### 3 LES FOURBERIES DE SCAPIN

théâtre / antzerkia

Enfin, le 25 juillet, les rires et les stratagèmes de Scapin s'invitent sur scène ! La Ben Compagnie revisite avec énergie Les Fourberies de Scapin dans une mise en scène dynamique et accessible à tous.

Azkenik, uztailaren 25ean, Scapin-en irriak eta jukutriak taulagaineratuko dira! La Ben Konpainiak "Les Fourberies de Scapin" (Eskapinoren maltzurkeriak) obra berrikusi du eta antzezpen dinamiko eta ulerterraza aurkezten digu.



*Tarifs : Adulte 20 € / Enfant 12-17 ans : 15 €*
*Tarifak: Helduak 20 €/ Haurrak 12-17 urte: 15 €*



# UN NOUVEAU SOUFFLE POUR ARNAGA

## *Hats berri bat Arnaga-rentzat*

C'est une nouvelle page de l'histoire d'Arnaga qui s'est ouverte le 2 avril dernier avec le lancement de la saison 2025. Avec une muséographie repensée, des vitrines réaménagées, des objets présentés pour la première fois au public et de nouvelles acquisitions, le musée propose désormais une expérience de visite renouvelée.

Arnaga-ren historiaren orrialde berri bat da, joan den apirilaren 2an ireki zena 2025eko denboraldia abiatu zenean. Museografia birpentsatua, erakusleiho birkonfiguratuak, publikoari lehen aldiz erakutsitako objektuak eta objektu eskuratu berriekin, museoak bisita esperientzia berritua eskaintzen du orain.

# EDMOND ROSTAND ET SON ENTOURAGE

## *Edmond Rostand eta ingurukoak*



**Si Edmond Rostand a réalisé la demeure de ses rêves avec la construction d'Arnaga, il n'est pas le seul à y avoir vécu.**

Les visiteurs vont pouvoir rencontrer Rosemonde Gérard, son épouse et poétesse, reine de l'élégance du début du XXème siècle, Maurice son fils ainé, écrivain, ou encore Jean, le cadet, biologiste et scientifique éminemment reconnu.

L'entourage amical et artistique de l'auteur de « Cyrano de Bergerac » est aussi mis à l'honneur dans le cadre d'expositions-dossiers proposant des focus sur des personnalités très célèbres en leur temps, telles que les comédiens Constant Coquelin et Sarah Bernard.

**Edmond Rostand-ek Arnaga eraikitzean ametsetako etxea egin bazuen, ez da han bizi izan den bakarra.**

Bisitariek, Rosemonde Gérard, bere emazte eta olerkaria, XX. mende hasierako dotoreziaren erregina, Maurice, seme gehiena, idazlea, edo Jean, gazteena, biologoa eta zientzialari ezaguna ezagutzeko parada izanen dute.

"Cyrano de Bergerac"-en idazlearen giro adiskidetsu eta artistikoa ere omentzen da bere garaiko pertsona ospetsuei buruzko aurkezpenak proposatzen dituzten dosier-erakusketen esparruan, adibidez Constant Coquelin eta Sarah Bernard aktoreak.

culture / kultura

**ARNAGA:**

# UNE IMMERSION DANS LA BELLE-EPOQUE

## *"Belle Époque" garaian murgiltzea*

**Et au-delà des personnes, c'est toute l'atmosphère de la Belle Époque que les visiteurs vont pouvoir revivre.**

Construite entre 1903 et 1906, la Villa est à la fois un des premiers exemples de style néo-basque et un témoin unique de l'« Eclectisme » (association de plusieurs styles anciens) dans son aménagement intérieur.
Accompagné par de nouveaux dispositifs de médiation, c'est une immersion dans une époque riche de bouleversements techniques et de rayonnement artistique et culturel qui est aujourd'hui proposé.

Et les projets à venir sont nombreux : le parcours permanent sera enrichi au fil des mois, des collaborations avec des Institutions prestigieuses sont à venir ainsi que des outils innovants, afin que chacun puisse repartir d'Arnaga tout simplement émerveillé.

**Eta pertsonez gain, Belle Époque-ko giro guztia da bisitariek bizi ahal izanen dutena.**

1903-1906 artean eraikia, Arnaga etxean, aldi berean, neo-euskal estiloaren lehen adibideetako bat da, eta "Eklektizismoa"-ren (antzinako hainbat estiloren elkarketa) lekuko bakarra barne-dekorazioan. Bitartekotza-gailu berriek lagunduta, eraldaketa teknikoetan eta distira artistiko eta kulturalean aberatsa den garai batean murgiltzea proposatzen da oraingoan.

Eta etorkizuneko proiektuak ugariak dira: ibilbide iraunkorra hilabeteetan zehar aberastuko da, kolaborazioak egonen dira erakunde ospetsuekin baita tresna berritzaileak ere, bisitari bakoitza liluraturik joan dadin Arnaga-tik.



patrimoine / ondarea

# OLHA, UN TRÉSOR PRÉHISTORIQUE SOUS NOS PIEDS

## *Olha, historiaurreko altxor bat gure oinen azpian.*



**Découvert en 1913 près du ruisseau d'Olha, le site archéologique date du Paléolithique moyen (env. 350 000 à 40 000 ans), époque de l'Homme de Néandertal. Emmanuel Passemard y mena les premières fouilles en 1917 sur le site « Olha I ». « Olha II » fut exploré de 1948 à 1977 par Georges Laplace (CNRS).**

Les vestiges découverts sont conservés dans plusieurs musées, notamment à Bayonne, Paris et Les Eyzies. Depuis 2023, Marianne Deschamps (CNRS) a repris les fouilles avec des étudiants internationaux. Grâce à des techniques de datation avancées, cette nouvelle campagne vise à évaluer le potentiel du gisement.

Les recherches ont révélé des foyers, outils de pierre taillée et ossements d'animaux chassés sur place (bison, cerf, cheval, hyène, mammouth, ours, panthère, rennes, rhinocéros...). Ces espèces témoignent d'un climat très différent selon les périodes.

Les fouilles se poursuivront en 2025.

**1913an Olha errekaren ondoan aurkitua, gune arkeologikoa Erdi Paleolitokoa da (350.000 eta 40.000 urte artean inguru), Neandertalgo Gizakiaren garaia. Emmanuel Passemardek 1917an egin zituen lehen indusketak «Olha I» gunean. «Olha II» 1948 eta 1977 artean ikertu zuen Georges Laplacek (CNRS).**

Aurkitutako hondarkinak hainbat museotan atxikiak dira, bereziki Baionan, Parisen eta Les Eyzies hirian. 2023tik, Marianne Deschampsek (CNRS) nazioarteko ikasleekin indusketak berriz hasi dituzte. Datazio teknika aitzinatuen bidez, kanpaina berri honek gunearen ahalmena ebaluatu nahi du.

Ikerketek ezagutarazi dituzte bertan ihiztatu izan diren animalien etxeak, harri pikatu tresnak eta hezurrak (bisontea, oreina, zaldia, hiena, mamuta, hartza, pantera, elur-oreinak, errinozeroa...). Espezie hauek klima oso ezberdina erakusten dute garaien arabera.

Indusketek 2025ean segituko dute.

**UNE DOUBLE EXPOSITION PRÉSENTERA LES DÉCOUVERTES:**

du 16 au 30 septembre à la Médiathèque Rosemonde Gérard, puis du 1er au 31 octobre à l'Espace Culturel Assantza.

**ERAKUSKETA BIKOITZ BATEK AURKIKUNTZAK ERAKUTSIKO DITU:**

irailaren 16etik 30ra Rosemonde Gerard Mediatekan eta urriaren 1etik 31ra Assantza Kultur Gunean.

urbanisme / hirigintza

# Vers une ville plus accessible: UN ENGAGEMENT DEPUIS 2016

# *Hiri irisgarriago baterantz: 2016az geroztiko engaiamenduetako bat*





**Depuis 2016, la commune s'est engagée dans une démarche de mise en accessibilité de ses établissements recevant du public (ERP), conformément à la loi du 11 février 2005.**

Aujourd'hui, elle est propriétaire d'une cinquantaine d'ERP, dont la majorité est désormais rendue accessible.
Les travaux réalisés dans ce cadre concernent notamment la mise en accessibilité des sanitaires, la pose de bandes d'éveil à la vigilance, l'installation de tablettes d'accueil devant les bureaux, ou encore la mise en place de contrastes visuels. L'objectif est de permettre à tous les usagers d'être accueillis dans les meilleures conditions.

Au fur et à mesure des travaux d'aménagement et d'embellissement de notre cadre de vie, les mises en accessibilité des trottoirs (pente, largeur), la sécurisation des passages piétons (résine, bandes de guidage, bandes d'éveil à la vigilance) sont également prises en compte.

Il s'agit de garantir une continuité piétonne accessible entre le centre-ville et les différents quartiers de notre cité.

**2016az geroztik, herria, jendea errezibitzen duten establezimenduen irisgarritasun-prozesuan (ERP), engaiatu da, 2005eko otsailaren 11ko legeak dion bezala.**

Gaur egun, berrogeita hamar bat ERPren jabea da, eta horietako gehienak errazki joan daitekeenak dira orain.
Esparru horretan egindako lanen artean daude, besteak beste, desgaitasuna duten pertsonentzako komunerako bidea erraztea, ohartarazpen-bandak ezartzea, bulegoen aitzinean harrera-mahaiak ezartzea eta ikusizko kontrasteak ezartzea. Helburua da erabiltzaile guztiak baldintza onenetan errezibitzea.

Gure ingurunea egokitzeko eta edertzeko lanek aitzina egin ahala, kontuan hartzen dira, halaber, espaloien irisgarritasunaren hobekuntzak (malda, zabalera), oinezkoentzako pasabideen segurtasuna (arraxina, gida-zerrendak, alerta-bandak).

Oinezkoei herriko erdigunearen eta auzoen arteko jarraitutasuna bermatzea da helburua.

service / zerbitzu



# LES POMPIERS DE CAMBO TOUJOURS TRÈS MOBILISÉS

## *Kanboko suhiltzaileak beti mobilizatuak*

Cérémonie le 14 juin dernier de remise du premier casque et premier insigne aux 14 jeunes sapeurs-pompiers de la promotion Nicole Amestoy.

**Le Centre de secours et d'incendie de Cambo-les-Bains compte une cinquantaine de sapeurs-pompiers volontaires sous les ordres d'un pompier professionnel, le Lieutenant Nicolas Vautier.**

Les données de l'année 2024 sur le nombre d'interventions sur les différents motifs sont assez stables par rapport à 2023, mais il faut noter une augmentation significative de 28% des interventions pour accident routier sur la commune de Cambo-les-Bains par rapport à 2023.
Les interventions de secours à personne sont largement prépondérantes et représentent 82% du total, tous motifs confondus.

Sur les 936 interventions dénombrées en 2024, 771 étaient sur le secteur de Cambo-les-Bains, dont 55% sur la commune de Cambo, soit 425 interventions.
Si on considère qu'une intervention mobilise en moyenne 7 personnes et dure environ deux heures, on se rend vite compte de l'investissement humain que cela représente.
Saluons l'engagement et les valeurs de service public des sapeurs-pompiers qui prennent souvent des risques pour nous aider ou nous sauver dans des situations parfois extrêmes.

**Nicolas Vautier lotinant eta suhiltzaile profesionalak zuzentzen du berrogeita hamar suhiltzaile boluntario inguru dituen Kanboko Sokorri Zentroa.**

Arrazoi desberdinengatiko interbentzioen kopuruari buruzko 2024ko datuak nahiko egonkorrak dira 2023rekin alderatuta, baina Kanbon zirkulazio-istripuagatiko interbentzioak % 28 igo dira nabarmen, 2023rekin alderatuta.
Gehienak pertsonak sokorritzeko interbentzioak dira, eta guztien % 82 dira, arrazoiak edozein direla ere.

2024an zenbatutako 936 interbentzioetatik 771 Kanboko eremuan izan ziren, eta horietatik % 55 Kanbo herrian, hots, 425 interbentzio.
Interbentzio batek bana beste 7 pertsona mobilizatzen dituela eta guti gorabehera bi oren irauten duela kontuan hartzen badugu, azkar konturatzen gira horrek dakarren giza inbestimenduaz.
Suhiltzaileen engaiamendua eta zerbitzu publikoaren balioak goresten ditugu; izan ere, ainitzetan, suhiltzaileek arriskuak hartzen dituzte gure laguntzeko edo salbatzeko, batzuetan muturreko egoeretan.




# CAMBO-LES-BAINS DÉCROCHE SON DEUXIÈME CŒUR VILLE PRUDENTE

## *Kanbok bere bigarren Bihotz Hiri zuhurra irabazi du*

urbanisme / hirigintza

**La Prévention Routière récompense les communes engagées pour la sécurité routière avec le label « Ville Prudente », qui compte cinq niveaux. Sur 48 villes labellisées en Nouvelle-Aquitaine, trois sont basques : Cambo-les-Bains, Briscous et Saint-Pée-sur-Nivelle. Cambo-les-Bains, représentée par Jean-Jacques Lassus, Conseiller municipal délégué, a reçu son deuxième Cœur lors de la cérémonie du 20 février 2025 à Bègles, après la visite de labellisation en 2024.**

La commune agit pour une circulation sûre et apaisée, quels que soient les modes de transport :

➔ Chicanes route de la Gare et quartier Delbarre

➔ Giratoires

➔ Zones de rencontre (20 km/h, priorité aux piétons) rue des Terrasses et lotissement Agorreta

➔ Cinq radars pédagogiques sur les axes principaux

➔ Signalisation, marquages, éclairage des passages piétons

Elle mène aussi des actions éducatives avec les écoles :

➔ Challenge connecté « Lumière et Vision » en 2024

➔ Plan Vélo lancé en avril 2025

Cette démarche se poursuit pour améliorer sécurité et qualité de vie. **Objectif : un troisième Cœur Ville Prudente !**

**Bide Prebentzioak «Hiri Zuhurra» labelarekin bide-segurtasunean engaiatuak diren herriak sariztatzen ditu, labelak bost maila ditu. Akitania Berriko 48 hiri labelizatuetarik hiru euskaldunak dira: Kanbo, Beskoitze eta Senpere. Kanbok bere bigarren Bihotza hartu du 2025eko otsailaren 20ko zeremonian, Bèlesen, 2024an labelizatze bisita izan den ondotik.**

Herriak zirkulazio seguru eta lasaia batendako egiten du, edozein garraiobidea :

➔ Sigi-saga Geltokiko bidean eta Delbarre auzoan

➔ Biribilguneak

➔ Elkarguneak (20 kilometro orenean, oinezkoen lehentasuna) Terrazetako karrikan eta Agorreta etxe gunean

➔ Bost radar pedagogiko ardatz nagusietan

➔ Oinezkoen pasabideen seinaleak, tinduak, argigailua

Eskolekin hezkuntza ekintzak ere egiten ditu:

➔ Lehiaketa konektatua « Argia eta ikusmena » 2024an

➔ Bizikleta Plana 2025eko apirilean

Urrats honek segituko du segurtasuna eta bizi kalitatea hobetzeko. **Helburua: hirugarren Bihotz Hiri Zuhurra!**

# À CAMBO, LE VÉLO S'INSTALLE DANS LE QUOTIDIEN !

sport / kirola

## *Kanbon, bizikleta egunerokoan finkatzen da!*



**Pour favoriser une mobilité douce, la commune développe l'usage du vélo au quotidien. Faute de largeur suffisante pour créer des pistes cyclables, un marquage « un vélo et deux chevrons » a été mis en place : il rappelle que la chaussée est partagée et que les cyclistes y ont toute leur place.**
**Des racks à vélo ont été installés dans plusieurs secteurs pour faciliter le stationnement.**

Deux solutions de location sont proposées :

- Txik Txak : vélos à assistance électrique (dès 22,50 €/mois), disponibles en version cargo, pliable ou longtail (infos sur txiktxak.fr)
- Pony : vélos électriques en libre-service, du 15 juin au 15 septembre, aux Thermes, gare routière, Office de tourisme, Villa Arnaga, Église Saint-Laurent, Colline de la Bergerie et Puyodebat.

Pour rouler en sécurité : casque obligatoire pour les moins de 12 ans, conseillé pour tous ; soyez visibles (éclairages avant/arrière) ; respectez le code de la route (feux, téléphone…). Automobilistes, respectez les sas vélo aux feux : ils protègent les cyclistes.

### OSEZ LE VÉLO !

Un geste pour la santé, la planète… et votre porte-monnaie. Rapide, agréable, libérateur, et plus simple pour se garer !

**Mugikortasun ezti baten laguntzeko, herriak bizikletaren erabilpena garatzen du egunerokoan. Bizikleta bideak sortzeko zabalera nahikoa ez den, «bizikleta bat eta bi V forma» markak tindatu dituzte: bideak partekatuak direla oroitarazten dituzte, eta bidean txirrindulariek beren lekuan direla.**
**Bizikleta euskarriak ezarri dira hainbat eremutan aparkatzea errazteko.**

Bi alokatze soluzio proposatuak dira:

- Txik Txak: laguntza elektrikorako bizikletak (22,50 € hilabetean), kargaontzi, plegagarri edo longtail bertsioetan eskuragarriak (txiktxak.fr)
- Pony: autozerbitzuko bizikleta elektrikoak, ekainaren 15etik irailaren 15era, Bainuetxean, autobus geltokian, turismo bulegoan, Arnaga etxea, Jondoni Laurendi eliza, elorrimendi eta Puyodebat.

Segurtasunean ibiltzeko: 12 urtez pekoentzat kaskoa baitezpadako da, denendako kontseilatua; ikusgarriak izan (aitzin/gibeleko argiak); errepide kodea errespetatu (argigorriak, telefonoa…). Auto gidariak, errespetatu bizikleta guneak argigorrien aitzinean: txirrindulariak babesten dituzte.

### BIZIKLETA AUSARTU!

Osasunaren, planetaren eta zure moltsaren aldeko ekintza bat. Zalua, goxoa, askatzailea, eta aparkatzeko errexagoa!



# TRIBUNE DE LA MAJORITÉ

# *Gehiengoaren mintzalekua*

**MARIENIA: UN PRETEXTE**

Le mandat que les Camboars nous ont donné, concerne, il convient ici de le rappeler, la gestion la plus rigoureuse possible, des intérêts de la commune.
C'est bien ce dont il s'agit lors d'élections municipales et c'est à cela que nous nous attelons jour après jour.
Ce que nos opposants font du dossier Marienia n'a rien à voir avec cette mission. Ils ont choisi de faire de ce site une tribune dévolue à une idéologie et à un combat politique qui dépassent, et de loin, les limites de la compétence communale.
L'objectif d'une affectation agricole sur un terrain qui, en fait, n'en a jamais été le site depuis des décennies est désormais fondée sur une appropriation plus sauvage que « populaire » de la terre qui n'a donc aucun lien avec les responsabilités que nos concitoyens nous ont confiées. D'autant que les méthodes choisies par les opposants au projet choquent nos concitoyens et bien au-delà : intrusion sur des terres qui ne leur appartiennent pas, labourage et ensemencement sans aucun droit, et ce au mépris total de l'article 17 de la Déclaration des Droits de l'Homme et du Citoyen qui dispose que la propriété est un droit inviolable.

Il faudra bien un jour dans ce Pays que l'on respecte les lois que s'est donnée notre République !!

Sur le site de Marienia, le samedi 17 mai dernier, des militants, d'ailleurs très minoritairement issus de la population camboarde, ont monté une mise en scène fondée sur un serment dit « des bâtons ». Les mêmes que l'on avait déjà vus et entendus lors de la séance tumultueuse, pour ne pas dire violente, du conseil municipal du 10 avril 2024. Comme quoi, l'argument qui consistait à nous demander de ne pas faire d'amalgame à ce sujet, vacille....
Image toujours ambigüe que celle du bâton...... Celui qui, certes, sert à guider, soutenir, mais, hélas aussi, parfois à frapper. Et pas toujours que les esprits...

Voilà donc comment ce site de Marienia se trouve instrumentalisé à des fins politiques où la commune, systématiquement validée dans ses choix par des décisions judiciaires successives, entend simplement satisfaire une demande criante de logements et de mixité sociale. Car là est le vrai sujet : répondre à un besoin patent de loger sur Cambo ou défendre la vision agricole d'un terrain qui ne l'a jamais été qu'à travers la présence ponctuelle et souvent éphémère de quelques brebis de passage.
Marienia devient ainsi le symbole d'un combat exclusivement idéologique.
Faut-il rappeler, de surcroit, qu'en contrevenant à l'obligation de respecter un minimum de 25% de logements sociaux, la commune de Cambo qui ne peut actuellement en proposer que 9%, est redevable

chaque année, d'une amende de plus de 100.000€ !
Nous ferons tout, dans un tel contexte, pour que la raison l'emporte. Il y va du bénéfice même des Camboars qui entendent bien pouvoir vivre et accéder au logement dans leur propre commune.
Seul compte en effet son intérêt supérieur. Il reste à espérer maintenant, alors même que tous les recours judiciaires ont conforté la Ville dans son bon droit, que l'indivision Colbert- Salagoïty, propriétaire et le Groupe Bouygues titulaire du permis de construire, trouveront le moyen d'éviter l'impasse qui en définitive ne servirait aucune cause.

## MARIENIA: ESTAKURU BAT

Kanboarrek eman diguten karguak, gogoratu behar dugu, herriaren interesak ahalik eta zorrotzen kudeatzea da.
Hori da solasan herriko hauteskundeetan, eta horretan ari gara egunetik egunera.
Gure kontrakoek Marienia dozierrarekin egiten dutenak ez du zerikusirik misio honekin.
Gune hau, ideologia eta borroka politika mintzalekua bihurtzea erabaki dute ; hauek herriaren eskumenaren mugak iragaiten dituzte.
Duela hamarkada batzuetatik hona laborantzaren kokaleku izan ez den lursail batean nekazaritzan aritzeko helburua lurraren jabetza «herrikoia» baino basatiago batean oinarritzen da orain, eta, beraz, ez du inolako loturarik gure hiritarrek eman dizkiguten erantzukizunekin.
Gainera, proiektuaren aurkakoek hautaturiko metodoek gure hiritarrak asaldatzen dituzte, eta askoz gehiago ere bai: haienak ez diren lurretan sartzea, eskubiderik gabe iraultzea eta ereitea, eta hori jabetza eskubide bortxaezina dela dioen Giza Eskubideen eta Herritarraren Deklarazioaren 17. artikuluaren gainetik.

Gure Estatuak bere buruari eman dizkion legeak bete beharko dira noizbait Herri honetan!!

Joan den maiatzaren 17an, larunbatez, Marieniako gunean, militante batzuek, gainera Kanboko bizilagunik oso gutxi ziren, antzezpen bat muntatu zuten, «makilak» izeneko zin batean oinarritua. 2024ko apirilaren 10eko Herriko Kontseiluaren bilkura zalapartatsuan, bortitza ez errateko, ikusi eta entzun genituen berberak. Gai horri buruz amalgamarik ez egiteko argumentua ahultzen da…
Makilaren irudia zentzu bikoitzekoa da. Gidatzeko, sustengatzeko balio duena, bai, baina, zoritxarrez, batzuetan jotzeko ere balio duena. Eta ez beti izpirituek bakarrik…

Horra, beraz, nola Marieniako gune hau helburu politikoetarako instrumentalizatua den, non herriak, bat bestearen ondotik hartuak izan diren erabaki judizialen bidez bere hautuetan sistematikoki baliozkotua izan den, etxebizitza eta gizarteko nahasketa eskaera nabarmen bat kontentatu nahi duen. Hor baita egiazko gaia: Kanbon bizitegi behar ageri bati erantzutea edo sekula izan ez den lur baten laborantzako ikusmoldea defendatzea, iragaitzazko ardi batzuen presentzia mugatu eta ardura iragankorraren bidez.
Marienia borroka ideologiko baten sinboloa bihurtzen da.
Oroitarazi behar dugu, gainera, etxebizitza sozialen % 25en errespetatzeko eginbeharra urratuz, gaur egun % 9a bakarrik proposatzen ahal duen Kanboko herria, urtero, 100.000 € goitiko isun batekin zordun dela!
Dena eginen dugu, testuinguru horretan, zentzua nagusitu dadin.
Kanboarrentzat da, beren herrian bertan bizi eta bizitegi eskuratu nahi baitute.
Izan ere, bere goiko interesak bakarrik du balio. Espero egon behar da orain, nahiz eta justizia errekurtso guztiek Hiria bere eskubidean indar eman zuten, Colbert-Salagoïty indibisoak, jabeak eta Bouygues Taldeak, eraikitzeko baimena duenak, bidea aurkituko dutela ataka gaiztoa saihesteko, ororen buru inolako kausarik balio ez lukeena.

**Pour le groupe majoritaire**
***Herriko gehiengoarentzat***

***Christian DEVÈZE***



Le groupe **Nahi Dugun Herria** n'a pas voté le budget présenté par la majorité municipale. Ce budget ne reflète pas nos priorités et illustre des choix politiques que nous ne partageons pas. Nous regrettons le manque d'ambition en matière de transition écologique, de soutien structurant au tissu associatif et économique, une gouvernance toujours aussi peu participative.

Face à la fermeture brutale mais prévisible de la clinique de l'Ursuya, nous sommes surpris que M. le Maire continue d'évoquer une réouverture témoignant d'une méconnaissance inquiétante des réalités de ce secteur pourtant stratégique pour l'emploi local. A signaler que la commission Economie, ne s'est pas réunie depuis plus de 4 ans.

Nous exprimons notre scepticisme face à la récente pose de pictogrammes vélo sur la chaussée. Présentés comme une avancée pour la circulation douce, ils se contentent en réalité de signaler ce qui est déjà permis : les vélos peuvent circuler sur la voie, comme avant. Une opération de communication, sans réelle ambition pour encourager la pratique du vélo dans des conditions sûres et adaptées. La mobilité mérite mieux qu'un coup de peinture.

Des nouvelles de MARIENIA : Comme beaucoup, nous avons suivi de près les actions menées sur le site de Marienia. Et bien évidemment, nous soutenons pleinement l'initiative des paysans qui ont labouré et semé cette terre pour en rappeler sa vocation nourricière. Ce geste fort et symbolique montre qu'un autre avenir est possible pour ces terres, loin du béton et des logiques spéculatives. Marienia ne doit pas devenir une zone de plus sacrifiée à l'urbanisation, mais rester un espace au service du vivant, de l'agriculture locale et de l'intérêt collectif.

Nous confirmons que la liste **Nahi Dugun Herria** sera bien présente aux prochaines élections municipales. Plus que jamais, nous sommes déterminé. es à porter une vision ambitieuse, juste et solidaire pour notre commune. Face aux enjeux locaux, nous continuerons à défendre une gouvernance transparente, proche des habitant.es et à construire un avenir respectueux de notre territoire et de ses équilibres. La démarche est ouverte : toutes celles et ceux qui partagent nos valeurs et souhaitent s'engager à nos côtés sont les bienvenu·es. N'hésitez pas à vous manifester dès maintenant pour rejoindre notre projet collectif. Construisons ensemble la commune que nous voulons : **Nahi dugun herria**.

**Nahi Dugun Herria** taldeak ez du herriko gehiengoak aurkeztu duen aurrekontua bozkatu. Aurrekontu honek ez ditu gure lehentasunak zaintzen eta partekatzen ez ditugun aukera politikoak erakusten ditu. Damu hartzen dugu anbizio falta trantsizio ekologikoari buruz, elkarte eta ekonomia sareari laguntza egituratzailea emateari buruz, gobernantza beti hain parte hartzailea ez izatea.

Ursuia klinikaren heste bortitz baina aurreikusgarria ikusirik, harritzen gaitu Auzapez jaunak berriz irekitze baten aipatzea, tokiko enpleguarentzat estrategikoa den sektore horren errealitateekiko ezezagutza kezkagarri baten lekuko. Ohar gaiten Ekonomia Batzordea ez da bildu azken 4 urte hauetan.

Gure dudak adierazten ditugu berrikitan errepideetan bizikleta piktogramak tindatzea. Zirkulazio leunaren aintzinatze gisa aurkeztuak, jadanik baimendua dena seinalatzera mugatzen dira: bizikletak bidetik ibil daitezke, lehen bezala. Komunikazio operazio bat besterik ez da, zinezko anbiziorik gabe bizikletaren praktika sustatzeko baldintza seguru eta egokietan. Mugikortasunak pintura kolpe bat baino gehiago merezi du.

MARIENIAren berriak : Anitzek bezala, Marienia gunean burutu ekintzak hurbiletik segitu ditugu. Eta bistan da, erabat sostengatzen dugu lur hau landu eta erein duten laborarien ekimena, haren elikatzeko bokazioa oroitarazteko. Keinu indartsu eta sinboliko horrek erakusten du lur hauentzat beste etorkizun bat posible dela, betoinetik eta logika espekulatiboetatik urrun. Marienia ez da urbanizazioari sakrifikatu beste eremu bat bilakatu behar, baizik eta bizi denaren, tokiko laborantzaren eta interes kolektiboaren zerbitzurako gune bat.

Berresten dugu **Nahi Dugun Herria** zerrenda presente izanen dela heldu diren herriko hauteskundeetan. Sekulan baino gehiago, gure herriarentzat ikuspegi handinahi, zuzen eta solidario bat eramatera deliberatuak gira. Tokiko erronken aintzinean, gobernantza garden bat defendatzen segituko dugu, biztanleetatik hurbil, eta gure lurraldearekiko eta haren orekekiko errespetuzko etorkizuna eraikitzen. Desmartxa idekia da : gure baloreak partekatzen dituzten eta gure ondoan engaiatu nahi duten guztiak ongi etorriak dira. Ez duda oraindanik gure proiektu kolektiboarekin bat egiteko. **Nahi dugun herria** elkarrekin eraiki dezagun.

**Nahi Dugun Herria**
www.kanbo-nahidugunherria.eu
www.facebook.com/NahiDugunHerria
ndh@kanbo-nahidugunherria.eu

## Écouter. Rassembler. Agir.

Au cours des dernières semaines, nous avons eu le plaisir de rencontrer de nombreux acteurs qui font, au quotidien, la richesse et la vitalité de notre belle ville de Cambo-les-Bains. Associations, entreprises, établissements de soins, maisons de retraite, écoles : vous êtes les forces vives de notre commune, et vous en constituez le socle essentiel.

Ces premières rencontres nous ont déjà permis de tirer plusieurs enseignements. Vous êtes nombreux à vous engager pour faire de Cambo une ville accueillante, créative, solidaire, où le lien social et le vivre ensemble occupent une place centrale. Mais cet engagement se heurte trop souvent à un manque de reconnaissance, à une à une coordination insuffisante, en particulier dans la relation avec la municipalité.

Nous sommes profondément convaincus que l'esprit de concorde doit retrouver une place prépondérante dans l'action publique. C'est pourquoi nous souhaitons rassembler les énergies autour d'un projet commun, durable et juste : un Cambo qui reste à taille humaine, soucieux de son équilibre et respectueux de son environnement fragile.

C'est pourquoi, dans les semaines à venir, nous continuerons à aller à votre rencontre. Pour mieux comprendre vos enjeux, vos défis, et réfléchir ensemble au Cambo de demain, celui que nous voulons bâtir pour la génération qui vient.

Cette réflexion, nous la souhaitons collective, ouverte et respectueuse des différentes sensibilités qui composent notre commune. À l'inverse des méthodes d'ostracisation, d'opacité, et — il faut bien le dire — d'inaction, qui ont marqué les dernières années de la gestion municipale.

Si vous souhaitez contribuer à cette réflexion, partager votre expérience ou simplement échanger, n'hésitez pas à prendre contact avec nous. Ensemble, donnons à Cambo un avenir à la hauteur de ses habitants.

## Entzun. Bildu. Ekin.

Azken aste hauetan, Kanboko herriaren aberastasuna eta bizitasuna, egunerokoan egiten duten eragile ainitz ikusi ditugu. Elkarteak, enpresak, zainketa-etxeak, zaharren egoitzak, eskolak: zuek zarete gure herriko indar biziak, eta haren oinarririk funtsezkoena.

Lehen elgarrizketa horiei esker, hainbat irakaspen atera ahal izan ditugu jadanik. Zuen lanari esker, gure herria begitartetsu, sortzaile, eta elkartasun izpirituz betea bihurtzen da. Herri bat nun lotura sozialak eta elkarbizitzak leku nagusia hartzen duten. Baina engeiamendu horrek, gehiegitan, Herriko Etxearen errekonozimendu faltarekin eta koordinazio eskasarekin oztopo egiten du.

Konbentzituak gira adiskidetasun-izpirituak merezi duen tokia berreskuratu behar duela ekintza publikoak. Horregaitik, proiektu amankomun, iraunkor eta justu baten inguruan bildu nahi ditugu indarrak: giza heinean atxikiko dugun Kanbo baten inguruan, bere orekaz arduratuta eta bere ingurumen hauskorra errespetatzen duena.

Horregaitik, datozen asteetan zuengana joaiten segituko dugu. Zuen desafioak eta erronkak hobeki ulertzeko eta biharko Kanboaz, datorren belaunaldiarentzat eraiki nahi dugunaz, elgarrekin hausnartzeko.

Hausnarketa hori kolektiboa, idekia eta gure herria osatzen duten sentsibilitate ezberdinekiko errespetuzkoa izaitea nahi dugu. Azken urte hauetan ostrazismoaz eta gardentasun faltaz azaldu den Herri ekintza moldearen osoki alderantzizkoa izango dena.

Gogoeta horretan lagundu nahi baduzu, zure esperientzia partekatu edo, besterik gabe, trukatu, ez izan dudarik gurekin harremanetan sartzeko. Elgarrekin, eman diezaiogun Kanbori bertako biztanleen pareko etorkizuna.

Jean François Lacosta
eta Peio Etxeleku (06 72 87 17 30)

CAMBO-LES-BAINS

# VILLA ARNAGA

23, 24 et 25 juillet

# Les Estivales 2025

## DANSE ET THÉÂTRE - 21 H

**23.07 : LE BOLÉRO DE RAVEL,
LE CID, LA MORT DU CYGNE…
DANS MOSAÏQUE**
par le Ballet Malandain de Biarritz

**24.07 : LES ROSTAND**
par la Compagnie Intersignes

**25.07 : LES FOURBERIES DE SCAPIN**
par la Ben Compagnie

Billetterie en ligne
www.cambolesbains.fr
En mairie ou à l'Office de Tourisme
05 59 93 74 30 - 05 59 29 70 25

DUHALDE Bâtiments - Travaux Publics
Durruty Groupe

Cambo-les-Bains
Kanbo